

UEMA-KO HERRIETAKO OSASUN ZERBITZUA

2021EKO EKAINA



UDALERRI
EUSKALDUNEN
MANKOMUNITATEA



Oinarri-oinarrizko zerbitzu publikoa da osasun arlokoa, eta euskaraz jasotzeko eskubidea aitortua dute euskara ofiziala den eremuetako herritarrek. Urteotan aurrerapauso nabarmenak eman dira eskubide horiek bermatzeko bidean —ez neurri berekoak leku guztietan—, baina oraindik urrun dago eskubideen bermea: osasun zerbitzuan ari diren profesional askok ez dakite euskaraz, eta, beraz, ez dira gai herritarren hizkuntza hautua bermatzeko. UEMako udalerrietako biztanleak ez dira salbuespena: egia da hizkuntza eskakizunen derrigortasun mailak handiagoak direla udalerri euskaldunetan, herritar euskaldunen dentsitate handiagatik, baina langile multzo esanguratsua da eskatutako hizkuntza gaitasunik gabe lanean ari dena; areago, UEMako udalerrietatik kanpora jo behar izaten dute biztanleek osasun zerbitzu batzuk jasotzera, eta horietan makurragoa da egoera.

UEMAren ildo estrategikoa da udalerriak erabat euskalduntzea, eta, helburu hori lortzeko, osasun zerbitzuan ere bermatu behar da herritarrek euskaraz aritu ahal izatea. Asmo horrekin, besteak beste, herrietan sortutako arazoen jarraipena egiten du UEMAk, dagokion osasun zerbitzuaren bitartez arazoa bideratzen ahalegintzeko, eta, aldian-aldian, langileen hizkuntza eskakizunen egoera zein den aztertzen du. Dokumentu honetan jaso da hizkuntza eskakizunen azterketa hori.

METODOLOGIA

Aurreko urteetan ere egin du UEMAk antzeko azterketa bat, kide dituen udalerrietan ari diren medikuak eta erizainak aintzat hartuta. Aldi honetan, analisia osatze aldera, UEMako herrietako osasun zentroetako langile guztiak hartu dira kontuan, eta, areago, UEMako herritarrei zerbitzu ematen dieten erreferentziazko osasun zentroak eta ospitaleak ere aztertu dira. Hauek dira denera:

1. **UEMAko herrietako osasun zentroak.** 90 udalerri dira UEMako kide, eta herri horietan guztietan dauden osasun zentroetako azterketa xehetua egin da, lanpostuz lanpostukoa.
2. **UEMAko herriei arreta ematen dieten osasun zentroak.** UEMako udalerri batzuetan ez dute osasun etxerik, edo osasun etxean ez dituzte oinarritzko zerbitzu guztiak ematen. Halakoetan, beste udalerri batzuetara jo behar izaten dute, eta batzuk ez daude UEMAn. Hemen jaso dira biztanle horiei zerbitzu eman baina UEMAn ez dauden herrien datuak.
3. **Erreferentziazko ospitaleak.** Oinarritzko osasun arretatik harago, udalerri guztiek dute izendatua erreferentziazko ospitale bat, zerbitzu espezializatua eta larrialdikoa jasotzeko. UEMako udalerrien erreferentziazko ospitaleetako hizkuntza eskakizunak aztertu dira.

Hizkuntza eskakizunak betetzeari buruzko azterketa informazio ofiziala erabiliz egin da, nahiz eta izan diren gorabehera batzuk bidean. Informazio ofiziala kontrastatu egin da ahal izan den kasu guztietan, udalerriz udalerriz, eta kontraesanen bat sumatu denean, berariaz egin da horren oharra.

1. **Osakidetza.** Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak Eusko Legebiltzarrari 2021eko otsailaren 16ko datarekin bidalitako informazioan oinarritu da analisi hau (12/10/07/02/00518-298 espediente zenbakia). Osakidetza postu guztien informazioa eman zen dokumentazio hartan. Batetik, lanpostuaren ezaugarriak: erakundea, zentroa, unitatea, funtzioa, lanpostuaren kodea, hizkuntza eskakizuna eta derrigortasun data; bestetik, une horretan lanpostu horretan zeudenek egiaztatutako hizkuntza eskakizuna eta euskaltegiko maila. Zerrenda horretatik aparte, badago osasun zerbitzu publikoa ematen duen zentro bat, Osakidetzarekin hitzarmena baitauka: Tolosako Asuncion klinika. Tolosaldeko eta Legorretako ematen die zerbitzu; beraz, UEMAko hemeretzi herriri. Hango langileen hizkuntza gaitasunaren informazioa eskatu zaio klinika horri, baina ez da erantzunik izan.
2. **Osasunbidea.** Nafarroako Gobernuak 57/2020 foru aginduaren bidez argitaratu zuen lantalde organikoaren zerrenda azken aldiz (2020ko maiatzaren 19ko aldizkari ofiziala). Osasun zerbitzuko lanpostuak zehaztuta daude zerrenda horretan, informazio honekin: lanpostua, postu kopurua, araubide juridikoa, maila, osagarriak eta euskara eskakizuna. Hortaz, informazio horretatik jakin daitekeena da lantalde organikoko zein postutan dagoen ezarria hizkuntza eskakizuna, ez langileak euskara gaitasuna egiaztatua duen ala ez. Informazio hori jasotze aldera, eskaera egin zaio Nafarroako Gobernuari, gardentasun atariaren bidez, baina erantzun du ez duela informazio hori. Hortaz, osasun profesionalek euskaraz badakiten ala ez egiaztatzeko aukera bakarra herriz herri kontrastatzea izan da.

1. UEMA-KO UDALERRIETAKO OSASUN ZENTROAK

Mankomunitateko 56 udalerrik dituzte osasun zerbitzuak herrian bertan; udalerrien %62k, beraz.

Honako hauek dira, herrialdearen arabera ordenaturik:


- **Gipuzkoa (30):** Alegia, Amezketza, Antzuola, Ataun, Azpeitia, Berastegi, Bergara, Deba, Elgeta, Errezil, Ezkio-Itsaso, Getaria, Irura, Itsasondo, Legorreta, Lizartza, Mendaro, Mutriku, Oiartzun, Oñati, Orio, Segura, Tolosa, Usurbil, Villabona-Amasa, Zaldibia, Zarautz, Zestoa, Zumaia.
- **Bizkaia (21):** Amoroto, Areatza, Atxondo, Aulesti, Bakio, Bermeo, Berriatua, Busturia, Dima, Ea, Gatika, Igorre, Izurtza-Mañaria, Larrabetzu, Lekeitio, Mallabia, Markina-Xemein, Muxika, Ondarroa, Orozko, Otxandio.
- **Nafarroa (4):** Baztan, Etxarri Aranzatz, Leiza, Lesaka.
- **Araba (1):** Aramaio.

Kontuan izatekoa da, gainera, udalerri horietako batzuek, ohiko osasun etxeaz harago, badituztela etengabeko arretarako guneak edo larrialdi zerbitzuak. Zehazki, honako herri hauek: Gipuzkoan, Azpeitiak, Bergarak, Tolosak eta Zarautzek; Bizkaian, Bermeok, Lekeitiok eta Ondarroak; eta Nafarroan, Baztanek, Etxarri Aranzatzek, Leitzak eta Lesakak. Horiek ere txertatu dira azterketan.

661 lanpostu daude UEMako herrietako osasun zentroetan: horietako 559 Osakidetza-ren ardurapekoak dira, eta 102, Osasunbidearenak. Postu horiek lau multzo nagusitan bana daitezke:

- Lehenik, medikuak: familia medikuak, larrialdietakoak eta pediatriak. 264 postu (%39,9)
- Bigarrenik, erizainak eta erizain laguntzaileak, emaginak barne direla. 260 postu (%39,3)
- Hirugarrenik, administrariak, harreragileak barne direla. 79 postu (%12)
- Azkenik, bestelakoak (zeladoreak, mantentze arloko teknikariak...). 58 postu (%8,8)


1. grafikoa: UEMako herrietako osasun zentroetako lanpostuak



Iturria: Eusko Jaurlaritza eta Nafarroako Gobernua. UEMak landua

UEMAko udalerrietako 661 osasun lanpostu horietatik %88,8k daukate hizkuntza eskakizuna bete beharra: 587 postuk. Lanpostu arloaren arabera badaude diferentzia batzuk: pediatrian eta larrialdietako erizaintzan, postu guztietan dago euskaraz jakin beharra; familia medikuetan, erizainetan eta administari postuetan, hamarretik bederatzi ingurutan; larrialdi medikuetan eta erizain laguntzaileetan dago eskakizunen derrigoritze txikiena, batez bestekotik nabarmen behera.


2. grafikoa: Hizkuntza eskakizunak UEMako herrietako osasun postuetan



	Familia medikuak	Pediatriak	Larrialdi medikuak	Erizainak	Larrialdi erizainak	Erizain laguntz.	Emaginak	Administariak	Besteak
Postuak	184	38	42	188	29	32	11	79	58
Euskara derrigor	164	38	31	169	29	18	9	75	54
Derrigor %	%89,1	%100	%73,8	%89,9	%100	%56,3	%81,8	%94,9	%93,1

Iturria: Eusko Jaurlaritza eta Nafarroako Gobernua. UEMak landua


Diferentziak, hala ere, berebizikoak dira Osakidetzaren eta Osasunbidearen artean. Izan ere, Eusko Jaurlaritzaren ardurapeko osasun zerbitzuan, UEMako udalerrietako lanpostu gehien-gehienek (%98) ezarria daukate hizkuntza eskakizuna betetzeko derrigortasuna: 559 postuetatik 548k. Nafarroako Gobernuaren osasun zerbitzuan, ordea, ez: UEMako udalerrietako lanpostu gehienetan, hamarretik seitan, ez dute euskaraz jakitea eskatzen, postuen %38an behar da euskara.



Iturria: Eusko Jaurlaritza eta Nafarroako Gobernua. UEMAK landua

Osakidetza

Autonomia erkidegoko legeei jarraikiz, Osakidetzako postu guztiek zehaztua dute zer hizkuntza eskakizun dagokien (B2). UEMako herrien kasuan, gainera, lanpostu horietako gehien-gehienek, %98k, derrigortasun data ere ezarria dute: zein egunetatik aurrera den eskakizun hori nahitaez egiaztatu beharrekoa. Derrigortasun maila %95etik gora dago arlo guztietan, erizain laguntzaileen eta emaginen artean izan ezik —talde txikiak dira horiek: hiru dira derrigortasunik gabekoak—.




	Familia medikuak	Pediatrak	Larrialdi medikuak	Erizainak	Larrialdi erizainak	Erizain laguntz.	Emaginak	Adminis-trariak	Besteak
Postuak	157	34	27	163	29	15	11	71	52
Euskara derrigor	153	34	27	159	29	14	9	71	52
Derrigor %	%97,5	%100,0	%100,0	%97,5	%100	%93,3	%81,8	%100	%100

Iturria: Eusko Jaurlaritza eta Nafarroako Gobernua. UEMak landua

Osasun Sailaren informaziotik azter daiteke txanponaren beste aldea ere: postuak ezarria daukan derrigorrezko eskakizuna betetzen ote duten zeregin horretan diharduten langileek. Kontuan izan behar da datu hori argazki zehatz bati dagokiola: otsailean, datuak eman zituztenean, momentu horretan lanpostu bakoitzean ari zen langileak zer hizkuntza eskakizun zeukan egiaztatua. Datu horien arabera, UEMako udalerrietan diharduten Osakidetzako profesionalen artean, ia bostetik batek ez du beharrezko hizkuntza gaitasuna egiaztatu: 559 beharginetatik 106k ez dute egiaztatua (%19). Profesional horietako gehienek ez dute batere euskara ezagutzarik egiaztatu, nahiz eta baden multzo txiki bat dagokiona baino eskakizun apalagoa lortua duena (lehen eskakizuna, B1).

Hizkuntza eskakizunen betetze maila batez bestekoaren azpitik dago pediatria arloan, erizain laguntzaileetan, emaginetan eta besteetan. Gainerakoetan, %80k baino gehiagok egiaztatua dute.




	Familia medikuak	Pediatrak	Larrialdi medikuak	Erizainak	Larrialdi erizainak	Erizain laguntz.	Emaginak	Adminis-trariak	Besteak
Postuak	157	34	27	163	29	15	11	71	52
Euskara egiaztatua	133	22	23	137	26	9	7	61	35
Egiaztatu %	%84,7	%64,7	%85,2	%84,0	%89,7	%60,0	%63,6	%85,9	%67,3

Iturria: Eusko Jaurlaritza eta Nafarroako Gobernua. UEMak landua

Udalerri eta zentro batetik bestera badaude gorabeherak hizkuntza eskakizuna egiaztatu gabe duten langileen kopuruan, baina, oro har, mediku bat eta erizain bat dituzten kontsultategiak kenduta, osasun zentro gehienetan badira euskaraz ez dakiten langileak. Adibidez, Villabona-Amasako osasun zentroan, hiru pediatretatik inork ez du lortua dagokion hizkuntza eskakizuna, eta berdin gertatzen da zortzi erizainetatik hirurekin; Azpeitian, etengabeko arretako guneko lau medikuetatik bik ez daukate derrigorrez dagokien euskara gaitasuna, ezta lau erizainetatik bik ere. Dokumentu honen amaieran, lehenbiziko eranskinean jaso dira datu horiek, lanpostuz lanpostu.

Osasunbidea

UEMA dauden Nafarroako herrietan, osasun profesional gehienek ez daukate euskaraz jakiteko eskakizunik: nahiz eta euskara hizkuntza ofiziala izan eta herritar gehienek euskaraz jakin, bost postutik bitan ere ez da euskara eskatzen (%38). Pediatren kasuan, bai, lanpostu guztiek ezarria dute hizkuntza eskakizuna, eta administrarietan, erdiek; besteetan, gehienek ez dute eskakizunik.



	Familia medikuak	Pediatrak	Larrialdi medikuak	Erizainak	Larrialdi erizainak	Erizain laguntz.	Emaginak	Adminis-trariak	Besteak
Postuak	27	4	15	25	-	17	-	8	6
Euskara derrigor	11	4	4	10	-	4	-	4	2
Derrigor %	%40,7	%100	%26,7	%40,0	-	%23,5	-	%50,0	%33,3

Iturria: Eusko Jaurlaritza eta Nafarroako Gobernua. UEMAk landua

Nafarroako UEMako herrietako lau osasun zentroetan da gisa berekoa egoera: lanpostu gehienek ez dute hizkuntza eskakizunik. Proporzioan, Lesakako osasun etxean dago eskakizuna duen

postu gehien, baina ez dira erdira iristen (29 postuetatik 14; %48); hortik behera daude Etxarri Aranazko osasun zentroa (22tik 8; %36), Leitzakoa (17tik 6; %35) eta Baztangoa (34tik 11; %32).

Lau osasun zentro horietako medikuen eta pediatren euskara ezagutzari buruzko datuak bildu ditu UEMAk, herrien bidez. Medikuei dagokienez, hau da egoera, aurrez aurreko zerbitzua ematen duten familia medikuak eta larrialdikoak hartuta —lantalde organikoan sartuta daude zentroetako arduradunak eta ginekologoak ere—: 36 lanpostu dira, horietatik 15ek dute ezarria hizkuntza eskakizuna, eta denera 13 medikuk dakite euskaraz; herenek, beraz. Pediatrian, are makurragoa da egoera: lau postu dira, laurek dute eskakizuna, baina ez dago pediatra euskaldunik. Guztira, beraz, 40 sendagile lanpostu dira horiek, 19k dute eskakizuna, baina 13k dakite euskaraz.

GAKO NAGUSIAK

- UEMako 56 herritan daude osasun zentroak, eta 661 lanpostu daude horietan: Osakidetzaaren ardurapekoak dira 559, eta Osasunbidekoak 102.
- Postu horietako gehienek, %89k, bete beharreko hizkuntza eskakizuna dute, baina alde handia dago: Osakidetzan, %98k; Osasunbidean, %38k.
- Osakidetzako langileei dagokienez, UEMako udalerrietan ari diren artean bostetik batek ez du egiaztatu lanpostuaren hizkuntza eskakizuna: 559tik 106k. Proportzioan, eskakizuna egiaztatu gabekoak gehiago dira pediatretan, emaginetan, erizain laguntzaileetan eta bestelako postuetan.
- Osasunbidean, pediatra guztiek ezarria daukate eskakizuna, baina ez dago batere euskaldunik; familiako medikuetan, herenek dakite euskaraz.

2. UEMA-KO HERRITARREN LEHEN ARRETA KO ZENTROAK


UEMAko udalerrietan dauden zentroetatik aparte, badira herri horietako biztanleei oinarrizko osasun zerbitzua ematen dieten zentro gehiago, UEMAkoak ez beste herri batzuetan daudenak. Horiek jaso dira atal honetan: UEMAko udalerrietako biztanleek UEMAkoak ez diren herrietan jasotzen dituzten oinarrizko osasun zerbitzuak. Horiek aztertzeko, herrian bertan ez dauzkaten zerbitzuetako profesionalak soilik aztertu dira; alegia, adibidez, UEMAko udalerrri batean familia medikua baldin badago baina pediatrarik ez, UEMAkoa ez den udalerriko zentroan soilik aztertu da herritarra arta dezaketenen gaitasuna —adibideko kasuan, pediatria, erizaintza eta harrera—.

Honako zentro hauek hartu dira aintzat:

- **Araba (2):** Laudioko osasun zentroa, Laudioko EAG.
- **Bizkaia (11):** Durangoko EAG, Ermuko osasun zentroa, Ermuko EAG, Galdakaoko osasun zentroa, Galdakao ESIko emaginak (ez dago zehaztua postu bakoitza zein herritan ari den), Gautezigko kontsultategia, Gernikako osasun zentroa, Iurretako kontsultategia, Landako-Durangoko osasun zentroa, Mungiako EAG, Mungiako osasun zentroa.
- **Gipuzkoa (12):** Arrasateko anbulatorioa, Beasaingo anbulatorioa, Beasaingo EAG, Eibarko EAG, Eibarko ospitaleko EAG, Elgoibarko EAG, Errenteriako EAG, Ibarra osasun zentroa, Lazkaoko osasun zentroa, Ordiziako osasun zentroa, Zumarragako EAG, Zumarragako osasun zentroa.
- **Nafarroa (2):** Ultzamako osasun zentroa, Irurtzungo osasun zentroa.

Aztertutako zentro horietan 366 lanpostu daude UEMAko herrietako biztanleei zerbitzua ematen dietenak. Osakidetzaaren ardurapekoak dira postu horietako gehienak, 326; 40, Osasunbidearenak. Hizkuntza eskakizuna bete beharra duten postuak seitik bost dira (%84): 366tik, 306. Batez bestekotik behera daude medikuak (%65), emaginak (%68), erizainak (%77), eta besteak (%80).

7. grafikoa: Hizkuntza eskakizunak UEMAn ez dauden herrietako postuetan




	Medikuak	Pediatrak	Erizainak	Emaginak	Adminis- trariak	Zeladoreak	Besteak
Postuak	72	40	88	28	96	37	5
Euskara derrigor	47	37	68	19	94	37	4
Derrigor %	%65,3	%92,5	%77,3	%67,9	%97,9	%100	%80,0

Iturria: Eusko Jaurlaritza eta Nafarroako Gobernua. UEMAk landua

Osakidetzaren eta Osasunbidearen artean diferentzia handia dago UEMATik kanpoko herrietako osasun zerbitzuetan ere. Izan ere, Osakidetzaren kasuan, hamar postutik bederatzitan (%91) dago hizkuntza eskakizuna derrigortasun data ezarrita, 295etan; Osasunbidean, berriz, zentro horietako lantalde organikoko hamar postutik hiruk (%28) dute hizkuntza eskakizuna jarria, 11k.


8. grafikoa: Eskakizunak UEMAn ez dauden herrietako osasun postuetan



Iturria: Eusko Jaurlaritza eta Nafarroako Gobernua. UEMAk landua

Osakidetza

Postu guztiek dute zehaztua zein eskakizun dagokien (B2), hala agintzen baitute erkidegoko legeek. Horietako gehienek, %91k, ezarria dute derrigortasun data; UEMako herrietakoa (%98) baino apalagoa da derrigortasuna dutenen portzentajea —euskaldunen ehunekoa txikiagoa da herri horietan—. Batez bestekotik nabarmen behera daude emaginak (%68) eta medikuak (%79).




	Medikuak	Pediatriak	Erizainak	Emaginak	Adminis- trariak	Zeladoreak	Besteak
Postuak	56	38	71	28	92	37	4
Euskara derrigor	44	36	64	19	92	37	3
Derrigor %	%78,6	%94,7	%90,1	%67,9	%100	%100	%75,0

Iturria: Eusko Jaurlaritza eta Nafarroako Gobernua. UEMak landua

Alde nabarmena da eskakizun horiek betetzeari dagokionez: lautik batek pasatxok (%27) ez du egiaztatu lanpostuari dagokion euskara gaitasuna. Aztertutako 326 lanpostuetatik 89tan ari dira hizkuntza eskakizuna lortu gabe lanean. Euskara gaitasuna egiaztatu ez dutenen portzentajea batez bestekoa baino handiagoa da zeladoreetan (%51), medikueta (%34) eta emaginetan (%32).

10. grafikoa: Eskakizunak betetzea UEMAn ez dauden herrietako Osakidetzako postuetan



	Medikuek	Pediatrak	Erizainak	Emaginak	Adminis- trariak	Zeladoreak	Besteak
Postuak	56	38	71	28	92	37	4
Euskara egiaztatu	37	30	55	19	76	18	2
Egiaztatu %	%66,1	%78,9	%77,5	%67,9	%82,6	%48,6	%50,0


Iturria: Eusko Jaurlaritza eta Nafarroako Gobernua. UEMAk landua

Aztertutako osasun zentroak eta langileak aintzat hartuta, hirutan dute behargin guztiek euskara eskakizuna egiaztatua: Beasaingo anbulatorioan, eta Gautegizko eta Iurretako kontsultategietan. Dokumentu honetako bigarren eranskinean jaso da zentro bakoitzeko postuen egoera zein den.

Osasunbidea

Nafarroako UEMAk udalerrietako biztanleei oinarrizko osasun zerbitzua ematen dieten bi talde daude UEMAk herrietatik kanpo kokatuak: Ultzamakoa eta Irurtzungoa. 40 lanpostu daude zentro horietan, lantalde organikoaren arabera, eta horietatik 11k daukate hizkuntza eskakizuna (%28). Eskakizuna ezarria dutenen portzentajea apalagoa da medikuetan (%19k dute, hamasei postuetatik hiruk) eta erizainetan (%24k dute, hamazazpitik lauk). Pediatren eta administrarien erdiek dute. Antzekoa da egoera Ultzamako taldean eta Irurtzungoan. Hara: Irurtzunen, 23 postu daude, eta horietako seitan eskatzen dute euskara (%26); Ultzaman, berriz, hamazazpi lanpostu ageri dira lantalde organikoan, eta horietako bostetan eskatzen dute B2 mailako gaitasuna (%29).

11. grafikoa: Eskakizunak UEMAn ez dauden herrietako Osasunbideko postuetan



	Medikuak	Pediatrak	Erizainak	Emaginak	Adminis- trariak	Zeladoreak	Besteak
Postuak	16	2	17	-	4	-	1
Euskara derrigor	3	1	4	-	2	-	1
Derrigor %	%18,8	%50,0	%23,5	-	%50,0	-	%100

Iturria: Eusko Jaurlaritza eta Nafarroako Gobernua. UEMak landua

Zentro horietako benetako egoera zein den, bi pediatria postuetatik bakarrean dago hizkuntza eskakizuna, baina bi pediatriak dira erdaldun elebakarrak. Medikuei dagokienez, hiru postuk daukate eskakizuna ezarria, baina gehiago dira euskaraz dakiten sendagileak: gutxienez lau dira.

GAKO NAGUSIAK

- Beste herri batzuetako 27 zentrotan ematen diete lehen arretako zerbitzua UEMako herrietako biztanleei; zehazki, horietako 366 beharginek.
- Postu horien %84an dago euskara jakin beharra: Osakidetzan %91 dira, eta Osasunbidean, %28.
- Osakidetzan langileen %27 ari dira dagokien eskakizuna bete gabe, batik bat honako hiru arlo hauetan: zeladoreak, medikuak eta emaginak.
- Osasunbidean, bi pediatretatik bakarrik du eskakizuna, baina biak dira erdaldunak; medikuetan, hiruk dute, baina gehiagok dakite.

3. OSPITALEAK

Oinarrizko osasun zerbitzutik harago, ospitaleetara ere jo behar izaten dute UEMako herrietako biztanleek, horietan baitaude hainbat zerbitzu: arreta espezializatua, larrialdiak, ospitaleratzeak... Hortaz, UEMako herriei zerbitzu ematen dieten ospitaleak ere aztertu dira, betiere lantalde organikoko postuen hizkuntza eskakizunei erreparatuta. Honako zentro hauek izan dira aztergai:

- **Araba (1):** Arabako Unibertsitate Ospitalea
- **Bizkaia (4):** Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea, Galdakao-Usansolo Ospitalea, Urdulizko Alfredo Espinosa Ospitalea, Gernika-Lumo Ospitalea.
- **Gipuzkoa (5):** Donostiako Unibertsitate Ospitalea, Zumarragako Ospitalea, Mendaroko Ospitalea, Debagoieneko Ospitalea, Eibarko Ospitalea.
- **Nafarroa (1):** Nafarroako Ospitale Gunea.


Ospitale horiei dagozkien 19.973 postu daude lantalde organikoan: Osakidetzakoak dira postu horietatik hiru laurden (14.881), eta laurdenak, Osasunbidekoak (5.092). Behargin kopuruaren aldetik, Nafarroako Ospitale Gunea (NOG) da zentrorik handiena: 5.092 postu ditu. Haren atzetik daude Bizkaiko, Gipuzkoako eta Arabako erietxe nagusiak: Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea (3.987), Donostiako Unibertsitate Ospitalea (3.982) eta Arabako Unibertsitate Ospitalea (3.040).



Iturria: Eusko Jaurlaritza eta Nafarroako Gobernua. UEMak landua

Ospitale horietako lanpostuetatik, lautik batean da derrigorra hizkuntza eskakizuna betetzea: 5.329 postutan (%27). Langile arloaren arabera diferentzia adierazgarriak daude euskara jakiteko betebeharrari dagokionez: medikuen artean dago derrigortasunik txikiena, zortzitik batek baitu


hizkuntza eskakizuna egiaztatzeko derrigortasun data ezarria; administrarietan dago hedatuena euskara gaitasuna egiaztatu beharra, baina horietan ere ez da iristen lanpostuen erdietara (%49).



	Medikuak	Pediatrik	Larrialdi medikuak	Erizainak eta laguntzaileak	Administariak	Bestelakoak
Postuak	3.815	202	291	9.054	1.666	5.338
Euskara derrigor	481	80	129	3.057	821	970
Derrigor %	%12,6	%39,6	%44,3	%33,8	%49,3	%18,2


Iturria: Eusko Jaurlaritza eta Nafarroako Gobernua. UEMAK landua

Gainerako osasun zerbitzuan bezala, hizkuntza eskakizunen ezarpenean berebiziko aldea dago Osakidetza eta Osasunbidearen artean. Osakidetza dagokionez, ospitale horietako postuen %36k daukate derrigortasun data ezarria (14.881etik, 5.289k); Osasunbidean, berriz, NOGeko postuen %1era ere ez da iristen hizkuntza eskakizuna duten lanpostuen ehunekoa (5.092tik, 40).



Iturria: Eusko Jaurlaritza eta Nafarroako Gobernua. UEMAK landua

Zentro batetik bestera ere alde handiak daude, nolanahi ere. Derrigortasun daten ezarpenik handiena ospitalerik berrienetan dago, Gernikan eta Eibarren: bietan, bost postutik lauk baino gehiagok dute finkatua euskara ezagutza egiaztatzeko epea. Urduliz da salbuespena: 2016an ireki zuten, eta hiru postutik batek ere ez du derrigortasun data ezarria. Hiru herrialdeetako ospitale nagusiei dagokienez, postu gehienak daude derrigortasuna finkatu gabe: Arabako eta Gurutzetako ospitaleetan, lau postutik bat pasatxoan dago derrigortasuna; Donostiakoan, berriz, bostetik bitan.




	Araba	Gurutzeta	Galdakao	Urduliz	Gernika	Donostia	Zumarraga	Mendara	Debagoiena	Eibar	NOG
Postuak	3.040	3.987	1.619	665	39	3.982	572	488	381	108	5.092
Euskara derrigor	840	1.036	687	195	33	1.576	263	295	268	96	40
Derrigor %	%27,6	%26,0	%42,4	%29,3	%84,6	%39,6	%46,0	%60,5	%70,3	%88,9	%99,2

Iturria: Eusko Jaurlaritza eta Nafarroako Gobernua. UEMak landua

Ezarritako eskakizunak betetzeari dagokionez, derrigortasunaren ezarpenaren gainetik dago, oro har, nahiz eta badiren gorabeherak zentro batetik bestera; alegia, derrigorrezkoa ez den postuetan ere badira euskaraz badakitenak. Alde oso handia dago Osakidetzaren eta Osasunbidearen artean.

Osakidetzak

Euskara derrigorrezkoa den postu kopurua eta hizkuntza eskakizuna egiaztatua duten beharginen kopurua alderatuta, nabari da igoera Osakidetzako ospitaleetan: %36 postuk daukate ezarria derrigortasun data, baina langileen %49k lortua dute postuan zehaztutako eskakizuna. Esparru batetik bestera badaude aldeak: batetik, eskakizunak egiaztatuak dituzte pediatria, larrialdietako mediku, erizain eta erizain laguntzaile, eta administrari gehienek, betiere %60k baino gutxiagok; medikuen eta bestelako langileen artean, berriz, gehienek ez dute euskararen ezagutza egiaztatu.




	Medikuek	Pediatriak	Larrialdi medikuak	Erizainak eta laguntzaileak	Administrazioak	Bestelakoak
Postuak	2.858	148	245	6.694	1.170	4.159
Euskara egiaztatu	1.296	83	123	3.481	698	1.835
Egiaztatu %	%45,3	%56,1	%50,2	%52,0	%59,7	%44,1

Ospitalez ospitaleko egoerari dagokionez, gehienetan handiagoa da euskaraz badakitela egiaztatu dutenen kopurua, euskara derrigor egiaztatu behar duten postuak baino. Hiru salbuespen daude: Gernika, Eibar eta Debagoiena. Hain justu, hiru horietan da handiena derrigortasun daten ezarpena, %70etik gorakoa. Gainerakoetan, berriz, derrigortasuna duten postuen gainetik daude euskaraz badakiten langileen kopuruak, eta kasu batzuetan nabarmena da diferentzia: Donostiako eta Zumarragako ospitaleetan, adibidez, 17-18 puntu gorago dago langile euskaldunen ehunekoa.

Nolanahi ere, egoera orokorra honako hau da: bost langiletik lau baino gehiago euskaldunak diren ospitale bakarra dago, Gernikakoa, eta hango langile kopurua nabarmen txikiagoa da gainerako erietxe gehienekin alderatuta; Arabako eta Bizkaiko zentro gehienetan, langile gehienek ez dute hizkuntza eskakizunik batere egiaztatu, nahiz eta %40tik gora dauden euskaraz badakitenen portzentajeak erietxe guztietan; Gipuzkoako zentroen kasuan handiagoa da euskaraz badakiten beharginen ehunekoa, eta ospitale nagusian dago ehuneko txikiena, Donostiakoan: %57k dakite.

17. grafikoa: Eskakizuna egiaztatua dutenak Osakidetzaeren ospitaleetan



	Araba	Gurutze.	Galdakao	Urduliz	Gernika	Donostia	Zumarr.	Mendaro	Debagoi.	Eibar
Postuak	3.040	3.987	1.619	665	39	3.982	572	488	381	108
Euskara egiaztatua	1.231	1.662	771	299	32	2.259	368	352	259	77
Egiaztatu %	%40,5	%41,7	%47,6	%45,0	%82,1	%56,7	%64,3	%72,1	%68,0	%71,3

Iturria: Eusko Jaurlaritzak. UEMAK landua

Osasunbidea

Nafarroako Ospitale Gunean, lantalde organikoko postuen %0,8k dute hizkuntza eskakizuna ezarria. Gehiago dira euskaraz dakiten langileak, baina gutxiengo oso nabarmena. Nafarroako Osasun Departamentuaren lehen hizkuntza planeko (2019-2021) diagnostikoaren arabera, osasun zerbitzu zentraletan langileen %4k dute B2 maila edo handiagoa —%8k dute maila hori baino baxuagokoren bat—. Informazio horretan oinarrituta, ondorioztatu daiteke NOGeko 5.092 postuetatik 40k dutela hizkuntza eskakizuna, baina 200 bat direla zerbitzua euskaraz emateko gai.

GAKO NAGUSIAK

- Ospitaleetako postuen %27k daukate eskakizuna egiaztatu beharra: medikuetan, gutxiagok, %13k.
- Aldea oso handia da: Osakidetza postuen %36k daukate egiaztatu beharra; Osasunbidean, %1ek.
- Euskaraz dakiten langileak gehiago dira, baina ez dira gehiengo Osakidetza (%49); ospitaleen artean alde handia dago. Osasunbidean, %4 dira.

4. ONDORIOAK

UEMAko herritarrei osasun zerbitzua ematen dieten eremuak hartu dira aztergai analisi honetan: UEMAko herrietako osasun etxeak, eta beste herri batzuetan dauden lehen arretako zentroak eta ospitaleak. Amaierako kapitulu honetan, azterketaren giltzarri nagusiak eta gogoetak bildu dira.

1. **Eboluzio argirik ez.** Orain hiru urte, 2018an egin zuen UEMAk gisa honetako azken azterketa, eta orain osatu egin du, osasun langile guztiak aintzat hartuta. Ez da diferentzia handirik sumatu, ordea: UEMAko herrietan ari diren langileetatik, bostetik batek ez du egiaztatu beharrezko euskara gaitasuna; pediatretan handiagoa da ehunekoa. Eboluzioa argia da begirada luzeagoz erreparatuta, baina azken urteetan ez da izan aldaketa handirik.
2. **Osakidetza eta Osasunbidea.** Azterketan bistan geratu da hizkuntza eskakizunen aldetik nolako diferentzia dagoen Osakidetzaren eta Osasunbidearen artean: Nafarroan, izan ere, udalerrri euskaldunetan ere postuen gutxiengo batean eskatzen dute euskaraz jakitea, bostetik bitan ere ez; Osakidetzan, berriz, UEMAko udalerrietan, ia lanpostu guztietan da derrigorrezkoa euskara gaitasuna egiaztatzea. Azken urteetan bi erakundeek hizkuntza politikaren ikuspegitik egin duten bide desberdina ageri-agerian jartzen dute datu horiek.
3. **Osasun etxetik ospitalera.** Hiru geruza aztertu dira: UEMAko herrietako osasun etxeak, UEMAko herritarrei zerbitzu ematen dieten lehen arretako zentroak, eta ospitaleak. Batetik bestera sumatzen da aldaketa hizkuntza eskakizunei dagokienez. Argigarriak dira Osakidetzako datuak: UEMAko herrietan, postuen %98k dute derrigortasun data ezarria; beste herri batzuetako lehen arretako zentroetan, %91k; eta ospitaleetan, %36k. Nafarroan ere dinamika bera da, beste kopuru batzuetan: UEMAko herrietan, %38; besteetan, %28; eta ospitalean, %1. Kontua da, ordea, eskakizun horiek zer neurritan betetzen diren: langile multzo esanguratsu bat bi hizkuntza ofizialak jakin gabe ari da osasun zerbitzuak ematen. UEMAko herrietan, bostetik bat pasatxo dira; gainerako herrietan, lautik bat baino gehiago; eta ospitaleetan, erdiak. Urteotan aurrerapauso handiak eman dira esparru horretan, batez ere Osakidetzan, baina datu horiekin, hizkuntza eskubideak urratzen dira.
4. **Profesional multzoak.** Hizkuntza gaitasuna egiaztatzeari dagokionez, alde nabarmenak daude profesional multzo batetik bestera; medikuen artean, adibidez, handiagoa da euskaraz ez dakitenen ehunekoa. Profesional batzuen kasuan nabarmenagoa da nolako

hutsuneak dauden, duten inpaktu soziala dela eta: pediatrei dagokionez, adibidez, hainbat udalerri euskaldunetan badaude euskaraz ez dakiten profesionalak. Gai horrek egonezin handia sortzen du udalerri ugaritan, eta hizkuntza eskubideen urraketa nabarmena dira.

5. **Begiz begi josteko katea.** Hizkuntza eskubideak bermatzea da azken helburua, baina hori kate baten azken begia da. Begiz begi josi behar da katea, eta hor badira urratsak egiteko:

- Profesionalen prestakuntzari dagokionez, euskarazko eskaintza osatzeko premia dago. EHUn egin dira urrats batzuk urteotan, eta horiek sendotzea da eginkizun; NUPen Medikuntza gradua ematen hasi dira, baina erdara hutsez. Horrekin batera, ez dira gutxi osasun ikasketak egitera kanpora jo behar duten ikasleak ere. Beraz, katebegiaren hasierako puntuan, ezinbestekoa da euskarazko eskaintza sendotzea, eta ikasle euskaldunek bertan ikasi ahal izateko bitartekoak taxutzea.
- Kudeaketan bete-betean txertatu behar dira hizkuntza irizpideak, gogoan izanik oinarri bat: erakundeek betebeharra daukate herritarren hizkuntza hautua bermatzeko. Osasun arduradunen eta profesionalen artean ere gizarteratu behar da hori: herritarrenak direla hizkuntza eskubideak, eta zerbitzuaren kalitatean ezinbesteko aldagaia dela pazienteak aukeratutako hizkuntzan jardun ahal izatea.
- Katearen azken begian daude herritarrak: zerbitzu hartzaileak dira, eta hizkuntza eskubideak bermatu behar zaizkie. Horri dagokionez, eta euskararen erabilera normalizatzeari begira, bultzatu beharreko ildo da herritarrak ahalduntzea: euskarazko zerbitzua eska dezaten eta osasun etxean euskaraz egin dezaten. Finean, ezagutzaren arloan urteotan emandako pausoei etekina atera diezaieten.

6. **Belaunaldi aldaketa.** Langile aldetik aldaketa handiak datoz urteotan administraziora: erretiroa hartuko du behargin kopuru esanguratsu batek, eta belaunaldi berriak sartuko dira administraziora. Osasun zerbitzura ere bai. Horrek egokiera jartzen du euskarazko zerbitzua bermatzeko bidean urrats gehiago egiteko, kontuan hartuta belaunaldi berrien artean handiagoa dela euskaraz dakitenen ehunekoa. Horretarako, ordea, hizkuntza kudeaketa landu behar da: kontratazio irizpideak bete —ordezkapenetan ere bai—, langile berriei hizkuntza irizpideak azaldu eta jarraipena egin, euskaraz aritzeko laguntza eman...

5. LEHEN ERANSKINA: UEMA-KO HERRIETAKO ZENTROAK

ARABA

LANPOSTUARI BURUZKO INFORMAZIOA				LANGILEAK EGIAZTATUTAKO ESKAKIZUNA
Zentroa	Lanpostua	Derrigortasun data	Hizkuntza eskakizuna	
Aramaioko kontsultategia	Familia medikua	2008/06/01	2	3
	Erizaina	2008/06/01	2	3

BIZKAIA

Lea-Artibai

LANPOSTUARI BURUZKO INFORMAZIOA				LANGILEAK EGIAZTATUTAKO ESKAKIZUNA
Zentroa	Lanpostua	Derrigortasun data	Hizkuntza eskakizuna	
